



## Brontzea, urrea...eta zilarra

Maialen Chourraut herritarrak hirugarren domina olimpikoa eskuratu du Tokioko Joko Olimpikoetan / 10

BAT BASQUE TEAM

## 30 urteko abentura

Ttakun Kultur Elkarteak 1991tik darama haurren aisia lantzen, baita udaran ere / 7

Asteon jaso du Mikel Manterola herritarrak Aterpearen 'Eskuratu 1.000 euro' kanpainako saria / 2

294.000 bisita baino gehiago izan ditu TXINTXARRI-ren atari digitalak amaitzear den ikasturtean / 6



### Udaraz gozatzeko produktu paregabeak!

**GAS PAELLERA + HANKAK**



**DORRE HAIZAGAILUA**

Ikusezina, eraginkorra eta soinu gabekoa

**PLANTXA GRILL ELEKTRIKOA**



**SABAIKO LANPARA-HAIZAGAILU**



**IZOZKI-MAKINA**



600 857 586  
www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Uztailaren 28an jaso du 'Eskuratu 1.000 euro' kanpainako irabazle Mikel Manterolak (behean, gorritz) saria, Aterpeako ordezkarien eskutik. Hiru ordu izan ditu erosketak egiteko. TXINTXARRI

# Hiru ordu 1.000 euro gastatzeko

Mikel Manterola herritarra izan da Aterpearen 'Eskuratu 1.000 euro' kanpainako irabazlea. Uztailaren 28an jaso du, merkatarien elkarteko eta udaleko ordezkarien eskutik, eta hiru orduz aritu da herriko establezimenduetan erosketak egiten

## Txintxarri

Uztailaren 28an jaso zuen Mikel Manterola herritarrak Aterpearen *Eskuratu 1.000 euro* kanpainako saria, asteazkenez. Hiru ordu izan ditu herriko establezimenduetan erosketak egiteko.

Okendo plazan egin zuen Aterpea merkatarien elkarteak *Eskuratu 1.000 euro* kanpainaren sari banaketa. 16:30erako finkatua zuten hitzordua herriko plazan, eta ordurako Daimier DS420 Limousine modeloko autoa bertan zegoen irabazlea herrian barrena garraiatzeko zain. Aterpeko bazkideek eta jarduneko alkate

David Mateosek egin zioten harrera kanpainaren irabazle Mikel Manterolari. Hamar euroko 100 erosketa-txartel eskuratu zituen herriko establezimenduetan erabiltzeko, eta, horretarako, hiru ordu izan zituen. 17:00etan hasi zen erosketak egiten, eta 20:00etan amaitu.

Erosketa-txartelak erabiltzeko baldintza bakarria ezarri zioten Manterolari; establezimendu bakoitzeko, gehienez, hamar erosketa-txartel erabiltzea. Hau da, gehienez 100 euroko gastua egin ahal izan zuen establezimendu bakoitzean,

gutxienez, hamar komertzio bisitatuz.

Sarituaren lana errazteko, Aterpea merkatarien elkarteak gidari batek gidatutako Daimler DS420 Limousine modeloko auto bat jarri zuen bere esku, "udalerrria azkarrago eta erosoago zeharkatzeko, eta kanpainara atxikitako establezimenduetara joateko".

Merkatarien elkarteak jakinarazi du 67 establezimenduk parte hartu dutela aurtengo kanpainan.

## Urte amaierara arteko kanpainak

Aterpeak iraila eta abendua bitartean egingo dituen kanpainak ezagutarazi ditu. Hauek dira urtea amaitu aurretik egingo dituztenak: Stock azoka, Bezeroen hamabostaldia, Pura Suerte, Ferraren bila, Black Friday, Parking kanpaina, Eguberrietako

**HERRIKO 67  
KOMERTZIOK PARTE  
HARTU DUTE  
'ESKURATU 1.000  
EURO' KANPAINAN**

**ESTABLEZIMENDU  
BAKOITZEAN,  
GHEIENEZ, 100 EURO  
GASTATU AHAL IZAN  
DITU MANTEROLAK**



## Maialen Chourrauti omenaldi xumea

Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak omenaldi xumea egin dio, asteazken arratsaldean, Maialen Chourrauti goi-mailako kirolari eta herritarrari. Ur bizietako K-1ean zilarreko domina eskuratu du lasarteoriatarrek Tokioko Joko Olimpikoetan, eta, "harrotasunez" bisitu dute lorpena hori merkatarien elkarteko kideek. "Zorionak Maialen" zioten afixak eskuan hartuta elkartu dira Okendo plazan, kirolariari zorionak helarazteko.

Finalerdian zazpigarren denbora egin ostean, finaleko laugarren ureratu zen Chourrauti. Ez zuen akatsik egin eta jauzietako batean arazoa izan arren, zirkuituko azken zatian berreskuratu du denbora. Lehena sailkatu zen, 106,63ko denboran helmugaratuta. Azken hiru parte-hartzaileak jaitsi arte sailkapeneko buru izan da herritarra, baina Ricarda Funk alemaniarrek gainditu du helmugan 105,50 eginda. Zilarra kolkoratuta amaitu du lehiaketa olimpikoa.

kanpaina, eta, publizitatea, sustapena eta prestakuntza dira aurrera eramango dituzten egitasmoak.

Informazio hori ezagutzera ematearekin batera, herritarrei

kanpaina horietan parte hartzeko deia ere egin diete elkarteko bazkideek: "Kanpaina hauen arrakastarako zure laguntza eta parte-hartzea espero dugu".



Sareren bizikleta martxarekin bat egin duten herritarrak, Okendo plazatik Errekaldara abiatzeko unean. TXINTXARRI

# Presoak etxeratzeko deia, bizikleta gaineratik

Sare Herritarrak laugarren urtez antolatutako bizikleta itzuliaren azken tartea Gipuzkoatik igaro da, eta Lasarte-Oriako herritar talde batek bat egin du aldarrikapen ekintza horrekin. Errekalden Donostiara bidean zihoazen txirrindulariekin batu dira

## Txintxarri

Azken lau urteetan bezala, Sarek bizikleta itzulia egin du uztaile amaieran. Uztailearen 22an hasi, eta 24an amaitu zuten aldarrikapen ekintza hori. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan zabaldu zuten pedalkadaz pedalkada urruntze politikaren amaieraren aldeko aldarria.

Lehen tartea Garesen (Nafarroa) hasi eta Oionen (Araba) amaitu zuten, ostegunean, uztaileak 22. Uztailearen 23an, berriz, Bizkaian egin zuten, Sopelatik Mundakara

joanez. Igandean Gipuzkoaren txanda izan zen. Zumaia irten eta Donostian amaitu zuten, hiriburua zeharkatuta. Amaierako ekitaldia ere han egin zuten.

Dozena bat lasarteoriatarrek bat egin zuten egitasmoarekin. 10:30ean elkartu ziren Okendo plazan eta inguruan lehen pedalkadak egin ondoren, Errekaldara bidea hartu zuten. Bertan, Donostiara bidean zetozen gainerako txirrindulariei gehitu zitzaizkien.

Ekintza *Ibilian-ibilian Etxerako bidean* udako kanpainaren baitan kokatu dute antolatzaileek. Duela aste batzuk dinamikaren aurkezpenean azaldu zuten, "etxerako bidea" gauzatzera bideratuko dute estrategia. "Urruntze politikarekin guztiz amaitu, gradu progresioa era normalizatuan gauzatea ahalbidetu eta legedia arrunta aplikatuz, euskal presoak dagokien etxerako bidea har dezaten urratsak ematean, hain zuzen ere".



Garraio publikoko autobus baten artxiboko irudia. TXINTXARRI

## "Kalitatezko eta doako" autobus zerbitzu baten alde

Autobus zerbitzuan egin dituzten murrizketak salatu dituzte, eta kalitatezko zerbitzu bat aldarrikatu dute

### Txintxarri

Kontseilu sozialistak autobus zerbitzuan egin diren murrizketak salatu ditu. Azaldu dute langile klaseak "hain beharrezkoa" duen autobus zerbitzuan ordutegi murrizketa "izugarriak" eman direla, eta honek "arazoak" ekarri dituela. Eta arazo horiek azaldu dituzte. Kontseiluaren ustetan, hainbat egunetan erabiltzaile kopurua "asumitu ezin" ibili direla jakinaraztearekin batera, azaldu dute geltoki askotan "geratu ere ez" direla egin autobusak. Pertsona kopuru handiegiak pilatu diren Covid neurriak betetzea "ezinezkoa" izan dela ere azaldu dute, baita zenbaitetan, langileek euren lanpostura iristeko behar duten autobusarekin ere arazoak izan dituztela ere.

Gauzak horrela, Kontseilu Sozialistak uste du langileriaren aurkako "erasoa" dela, eta "bizitzen ari garen kapitalaren

ofentsiban" kokatu dute: "Gure inguruan argi eta garbi ikusten ditugu langileria miseriara kondenatzea helburu duten politikak, behin eta berriro burgesiaren eta haren morroien irabazi ekonomiko eta politikoak lehenesten dituztenak".

"Umiliazioa" onartu ez ezik "euren helburu politikoetarako erabiltzen dutenen jarrera" salatu nahi izan dute, "askotan euren aldarrikapen erreformistak langileon interesen defentsaren itxurapean ezkutatu arren".

Horregatik, doako autobus zerbitzua, kalitatezkoa eta unibertsal aldarrikatuta, "langileriaren interesen menpe antolatuko dena".

Horretarako guztiz beharrezko ikusten dute langile antolakuntza; "burgesiaren interesetara antolatutako politika instituzionaletik kanpo baizik lortu ezin dena".




# MAITE

ESTETIKA ARETOA

**Abuztuan zabalik goiz eta arratsaldetan**

zerbitzu  
mistoak

**Udan eman zaitez kapritxo bat!**

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



Zumaburu kalea 18 LASARTE-ORIA  
Tel: 943 36 24 63  
Gerturatu gure tailerrera!

## Konbinazio seguruenaz zure frenoentzat


ATE freno-disko eta freno-pastillak jartzeagatik DOAN eskura dezakezu freno-likidoa

\*Irailaren 30era arte






Centro de Frenos



Uztailaren 15etik 28ra 95 kutsatze baieztatu dituzte Lasarte-Orian; intzidentzia-tasa 498,82 izan da. TXINTXARRI

# Uztaila, intzidentzia handiko hilabeteetako bat

Eremu horian hasi, eta gorrian bukatu: urteko zazpigarren hilabetea amaitzera doa, eta SARS-CoV-2 birusaren transmisioa altua da Lasarte-Orian. Datu ofizialen arabera, 2020ko martxotik 1.915 herritar kutsatu ditu koronabirusak, ehun biztanletik hamar

## Txintxarri

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren datuen arabera, 2021eko uztaila intzidentzia handien izan duen hilabeteetako bat izango da Lasarte-Orian. Hilaren 28ra arte –datu horiek izan dira aldizkari honek kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik– 166 positibo baieztatu dituzte. 2020ko martxotik gaur arteko sailkapena egingo bagenu, uztaila bosgarren postuan legoke. Aurretik, hauek: 2020ko azaroa (275 kasu), 2021eko apirila (248), 2020ko urria (218) eta 2021eko urtarrila (215).

2020ko martxotik hona 1.915 herritar kutsatu ditu SARS-CoV-2 birusak (uztailaren 28ra arte),

ehun biztanletik hamar. Ia-ia guztiak osatu egin dira edo horretan ari dira, bizia galdu duten 23 pertsona izan ezik. Koronabirusa pairatu duten lasarteoriatarren %1,2 zendu dira, beraz.

Bosgarren olatuak gogor astindu du Lasarte-Oria ere. Intzidentzia-tasaren bilakaeran nabaritu da hori: eremu gorrian hasi genuen uztaila, eta gorrian bukatuko dugu, 500en bueltan ibiliko den tasarekin –400 baino altuagoak diren herriak hartzen dute kolore hori–. Uztailaren 28an 498,82koa izan zen, bezperakoa baino ia ehun puntu txikiagoa. Hilaren 15etik 28ra bitartean 95 kutsatze atzeman zituzten gure herrian; eguneko, batez beste, ia zazpi

(6,8). Uztailaren 2an izan ezik, hilabeteke beste egun guztietan detektatu dute kasu bat Lasarte-Orian, gutxienez.

## Eskualdeko datuak

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta eremu gorrian daude; koronabirusaren transmisioa altua da horietan guztietan. Usurbilen, aldiz, zertxobait apalagoa da, herri hori gune laranja dagoelako. Uztaileko lehenengo egunetik 28.era arte, Andoainen 134 kutsatze baieztatu dituzte, Astigarragan 92, Hernanin 412, Lasarte-Orian 166, Urnietan 111 eta Usurbilen 34. Sei udalerrri horietako positibo guztiak batuta, hona emaitza: 949.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

## Ziklo olinpikoa

Ustekaberik ezean, lau urtez behin jokatzeko dira Joko Olinpikoak. Eta kirolzale izan ala ez, uztail-abuztuko aste horietan telebistari eta albisteei begira egoten gara gimnastikaren edertasunarekin liluratuta, korrikalarien azkartasunarekin harriduta eta aurten bai, aurten piraguan ibili nahi duzula konbentziturak. Baina ez da gauza bera Kontxako badiaren uretan pasean ibiltzea edo Maialen Chourrautek bezala hirugarren domin olinpikoa kolokortzea.

Lau urtez behin izaten da, halaber, Euskararen Maratoia. Eta horretan ere, eguneroko praktikan euskaltzaleago izan ala ez, berrogei orduz aritzen gara herritarrak herriko plaza eta kaleak hartuta euskara mihian dantzan eta gorputzak *safri*duo-ren eta *rarararara gora euskara* edo *bero bero*-ren doinuekin astintzen. Ez da posible izan oraingoan, pandemia madarikatua tarteko.

Eta, atzera begira, lau urteko zikloa osatu dut nik neuk ere zutabe honetan. Ez daukat ilea hain kizkurtua, eta kenduta daukat *ezpaine*ko *piercing*-a honezkero. Esango nuke Kataluniako erabakitze eskubidearen aldeko erreferendumari buruz idatzi nuen hartaz geroztik aldatuko zela nire idazteko era, eta gaiei begiratzeko moduan ere aldatuko nuela zerbait. Baina, atzera begira, antzekoak izan dira beti gaiak: dela euskara, dela Lasartear identitate, dela feminismoa... aitzakiak, hamaika: maitasun erromantikoa, kale izendegia, hauteskundeak, Euskaraldia...

Barrura begira ere egon dira aldaketak, nahiz eta ukitzen eta hunkitzen nauten gaiak horiek berak izan. Nork du aukera halako espazio bat okupatzeko? Norengana heldu da emakume, euskaldun eta gazte honen ahotsa? Zer eragiten dit niri zutabe honen parte izateak? Zenbat laguni pasatu diet testua lehenago idazten dudaren onespeneren bila? Zenbatetan partekatu dut testua sare sozialetan, eta zergatik egin dut hori? Zenbatetan irakurri dut testua berriro, buruz ikastera arte balizko akats baten bila?

TXINTXARRI-koa ez da urteotan eskaini didaten toki bakarra, ezta agian, nahigabe gehiegi luzatu dudana bakarra ere. Behin toki bat edukita, hortik askatzea ez baita beti erraza. Boterea sentitzea zer den. Batzuetan aintzatespena eta beste batzuetan presioa ekarri du horrek, eta uste dut maiz erreproduzitu duela sexu-genero sistemaren araberrako dikotomia hori; espazio publikoa berez maskulinoa izateagatik ezaugarri horren zenbait jokabide nire egitea batetik, eta besteetan nahikoa indartsu ez sentitzeagatik aho txikiarekin esateagatik esan nahiko kontuak, bestetik.

Simone Bilesek azken egunetan erabaki du Joku Olinpikoetako gimnastikako finalak ez jokatzeko, osasun mentala lehenetsiz. “Munduaren zama” bere sorbalda gainean sentitzen duela azaldu du sare sozialetan. Eta nirea ez da hainbesterako izango, jakina, baina ziklo honetan ikasi dut batzuetan hobe dela beste batzuek esan behar duten horrentzako tokia uztea eta eremu ez hain publikoetatik ere eraldaketarako eragitea aberasgarria dela, naiz eta pribatua eginagatik, ez den aitortza hori jasotzen. Ezetz esaten ere ari gara ikasten, eta gero arteak luzatzen ere bai.

Eskerrik asko, beraz, TXINTXARRI, hori guztia ikasteko biden harlauzetako bat izateagatik. Ur bizietan baino, nahiago orain Kontxako badiaren uretan pasean aritu. Ea berandu baino lehen Okendo plazan topatzen garen *safri*duo-ren konpasekin dantzan.

## Eguneraketa guztiak ikusgai

COVID-19ak eragindako pandemia lehertu zenetik, 2020ko martxotik, birusak Lasarte-Orian izan duen intzidentziaren bilakaera gertutik jarraitu du TXINTXARRI-k, eta egunero-egunero berriro ditu datuak. Gaurkotze horiek guztiak [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalean kontsultatu ditzakezue, *Koronabirusa* izeneko kanal berezian. Herriko azken berriak ez ezik, eskualdekoak eta Euskal

Autonomia erkidegokoak ere jasotzen ditugu artikulu horietan.

Hitzak irudiz laguntze aldera, Flourish izeneko aplikazio bat erabiltzen ari gara Tokikom bateraguneko zenbait bazkide, grafiko interaktiboak sortzeko. Honako hauek sortu eta eguneratzen ditugu guk: herrian atzemandako kasuak, hilabetez hilabete, pandemia hasi zenetik (2020ko martxotik); Lasarte-Oriako intzidentzia-tasaren bilakaera

2021. urtean; azken hamalau egunetan baieztatutako kutsatzeen kopurua; eskualdeko herrietan eguneguz egun zenbat kasu erregistratzen diren, eta Beterri-Buruntzako herrietako intzidentzia-tasa zenbat den.

Abuztuan zehar ez dugu daturik eguneratuko, oportetean egongo garelako. Irailean hasiko gara berriro adierazle horien berri ematen, aipatutako kanal berezi horretan: <https://txintxarri.eus/bereziak/koronabirusa-lasarte-orian>.

# Kulturaren erritmora

XVI. Dantza Zirkuituak eta Olatz Salvadorrek emanaldi bana egin dute asteburuan. Herritar ugari erakarri du Oriartera emakume istorioetan oinarritutako *Hiru hitzetan* ikuskizunak, baita musikari donostiarrak kultur etxean egindako zuzenekoak ere

## Maitane Aldanondo

Uztailerako prestatutako kultur ekitaldien zerrenda, hilarekin batera, amaitzeaz da. Azken txanpako jarduera esanguratsuena Santa Ana parodia izan da, baina horren aurretik kulturazaleek izan zuten zerekin gozatu.

Kulturak adierazbide, kolore eta erritmo oso bestelakoak izan ditzake. Batzuetan, emanaldi beraren barruan uztartzen dira lehen begi kolpean loturarik gabek diruditen proposamenak. Horren erakusgarri da, XVI. Dantza Zirkuituak uztailaren 23an Oriarterako patiora ekarritako *Hiru hitzetan* ikuskizuna. Dantza garaikideko saioan NODE, Amalia Elizaran & Xabier Zeberio eta Nerea Gurrutzaga & Oihana Vesga taldeek pieza labur bana erakutsi zuten. Erritmo eta estilo aldetik antzik ez badute ere, emakume istorio bana dute oinarri. Hala, gorputzaren mugimenduen bidez, erresilientzia, ahalduntzea edota askatasuna bezalako gaiak lantzen dituzte 20 bat minutuko piezetan.

Antolatzaileek jarritako aulkien erdia baino gehixeago bete zituzten ikus-entzuleek, eta haiek

osatutako arkuaren erdigunean aritu ziren dantzariak. Irteten lehena, Amaia Elizaran izan zen, Xabier Zeberio zuzenean jotako musikak lagunduta, *OUT* pieza eskaini zuen. Arropa erantziz eta mugimenduz mugimendu askatzea irudikatu zuen.

Jarraian, gai berari helduta, estetikoki oso ederra den *Emakumeak* pieza dantzatu zuen NODE bikoteak. Bidaia inposatu eta bortxatu bat egitera behartutako bi pertsonaia gorpuztu zituzten, mugimenduekin elkar eraginez batzuetan, elkarren ispilu izanda, bestetan.

Amaitzeko, Nerea Gurrutzaga eta Oihana Vesgak hartu zuten zabalgunea, *Leiho zikin, zeru garbi* erakusteko. Espazio fisikoak eta testuinguruek gorputzean nahiz genero jarreraren duten eragina islatu zuten, emakumea objektu huts izatetik, hura ahalduntzera bidea uztartuz.


## Ilunpean, argia

Uztailaren 24an, aldiz, dantza Olatz Salvadorrek egin zuen kultur etxeako agertokian, eta hura entzutera joandako askok ere ezin izan zuen mugitzea saihestu.

Kultur etxeako iluntasuna aukeratu zutenak agurtuz ekin zion abeslariak ordubete eta laurden iraun zuen kontzertuari. Argirik ez zen falta izan, ordea. Fokuek sortutako argi-ilunek eta koloreek bat egin zuten musikarekin.

Estreinako *Zintzilik* eta iaz kaleratutako *Aho uhal* diskoetako kantekin osatu zuen erreperorioa. Haietan jasotako *Ahots hari, Zure egia, Nora, Lokarriak...* gitarra edo mikroa eskuaren artean zuela abestu zituen. Ia guztietan dantzan aritu zen eta irribarrea iltzatuta izan zuen, hitzek kontrakora eraman ezean. Bereziki zabala marraztu zitzaion *Korapilatzen* berarekin abesteko eskatu, eta bertaratutakoek ozen egin zutenean, "kontzertuetako edo munduko une politena" iruditzen zaiona lortuta.

Aurrera jarraitu zuen, *Eskuekin, Eraman nazazu* edo Ane Labaka Mayoz herritarrek idatzitako hitzak dituen *Gelditu hor* abestuz, azkenaren egileari aitortza eta eskertza eginda. Gezurak gustuko ez dituelako edo, bisik gabe amaitu zuen kontzertua, irten eta eskatuta bueltatzeko jolasa egin ohi ez duela aurrez ohartarazita.



Xabier Zeberio jotako musikak lagunduta dantzatu zuen Amaia Elizaranek. TXINTXARRI



Bi emakumeren askapen bidea modu ederrean islatu zuen NODEK. TXINTXARRI




Pieza bereziena izan zen genero jarrerari buruzko *Leiho zikin zeru garbi*. TXINTXARRI



Eszenografia bereziak bat egin zuen Olatz Salvadorren musika proposamenarekin. TXINTXARRI



Bere bi diskoetako kantekin osatu zuen donostiarrak erreperorioa. TXINTXARRI



Azken bost ikasturteetan hazkunde nabarmena izan dute TXINTXARRI-ren atari digitaleko datuek. TXINTXARRI/FLOURISH

# Elkarrekin ari gara hazten

TXINTXARRI aldizkariaren atari digitaleko trafiko datuak inoizko onenak izan dira 2020-2021 ikasturtean: irailtik uztaile 294.000 orrialde baino gehiago bisitatu dituzte 49.463 erabiltzailek. Datorren kurtsorako erronka goranzko joera mantentzea izango da

## Txintxarri

Inoiz baino erabiltzaile gehiagok inoiz baino orrialde gehiago bisitatu eta inoiz baino saio gehiago hasi dituzte [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atari digitalean, 2020-2021 ikasturtean. Artikulu honen helburua da zifra, portzentaje eta bestelakoak zuekin partekatzea, irakurleok. Aurrera jarraitu aurretik, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, egunero-egunero erakusten diguzuen konfiantzagatik.

Atari digitalean 1.359 artikulu (albisteak, argazki-notiziak, elkarrizketak, erreportajeak eta kronikak) argitaratu ditugu 2020ko irailtik aurtengo uztaile, 222 argazki-galeria publikatu, eta 139 bideo grabatu; guztira, 1.720 informazio-pieza. Hilabetero, batez beste, 123 artikulu, ia hamahiru bideo (12,6) eta hogeitargazki-galeria

pasatxo (20,2). Iazko kurtsoraino baino %15 artikulu gehiago publikatu ditugu aurtengoan (iaz 1.156 izan ziren), %3 argazki-galeria gehiago (iaz, 216) eta %19 bideo gutxiago (iaz, 172).

2020-2021 kurtsoraino zehar egindako 1.720 piezek 49.463 erabiltzaile erakarri dituzte. Irakurle horiek 120.797 saio hasi dituzte, eta 294.609 orrialde bisitatu dituzte. 2019-2020 ekitaldian izandako gorakada nabarmena egonkortu soilik ez, are gehiago hazi da aurtentzen: %6 bisita gehiago (pasa den kurtsoraino 275.366 izan ziren), %10 erabiltzaile gehiago (iaz, 44.496) eta %6 saio gehiago (iaz, 112.839).

Artikulu hau ilustratzen duen grafikoari erreparatu gero, honakoa ondorioztatu daiteke: azken bost ikasturteetan gorakada oso nabarmena izan dutela [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) web-orriko trafikoko

datuek. Begira, adibidez, zer gertatu den ikustaldiekin: 2016-2017 kurtsoraino 148.377 izan ziren, eta bost ikasturte beranduago, %50 gehiago, 294.609. Are gehiago hazi da erabiltzaileen eta saioen kopurua, zifrak bikoiztu egin baitira alor batean zein bestean. 2016-2017an 23.563 irakurle nabigatu zuten TXINTXARRI-ren atari digitaleko uretan barrena; ikasturte honetan askoz ere kide gehiago izan ditu eskifaiak, 49.463. Hasitako saioen hazkunde ere azpimarratzekoa da. Arestian esan bezala, duela bost ikasturte 62.419 izan ziren, eta aurtentzen, 120.797

## BOST IKASTURTEREN BURUAN %50 HAZI DA TXINTXARRI-REN ATARI DIGITALEKO BISITA KOPURUA

## Ikasturteko eduki irakurrienak



Agirre-Mantzidor familia. A. AGIRRE

**1-'Amatxo' eta 'amaren' hiru alaba:** 2.631 IKUSTALDI  
Familia eredu desberdinen gaineko seriea jorratu dugu ikasturte honetan, maiztean eta ekainean. Agirre-Mantzidor familiarekin ireki genuen erreportaje sorta, *amatxo* eta *amarekin*.



Leire Mayoz eta Mikel Arruti. EITB

**2-Bi lasarteoriatar Dominikar Errepublikan konkistatu nahian:** 1.299 IKUSTALDI  
Leire Mayoz eta Mikel Arruti herritarrek *El Conquistador del Caribe* telesaiaren parte hartu dute aurtentzen. Gure irakurleengan interesa piztu dute bi lehiakide horien ibilbideek.



Euskaldiko txapak. TXINTXARRI

**3-Euskaldiko txapak non, noiz eta nola jaso ditzaket?:** 1.268 IKUSTALDI  
2020ko azaroan hasi zen Euskaldian parte hartu zuten makina bat herritarrek, *Ahobizi* eta *Belarriprest* txapak soinean. Askok TXINTXARRI-ren bidez jakin zituzten jasotzeko jarraitbideak.



Ezker-eskuin, Izei eta Mikel. M.OLAIZ

**4-Izeiren aita, eta "familia zabala":** 1.038 IKUSTALDI  
Familia eredu desberdineko buruzko serieko artikulu batean, Mikel eta Izei Olaiz Garmendiaren egunerokoaren berri eman genuen. Aita ez ezik, "familia zabala" ere badu bi urteko gazte txak.

izan dira. Zalantzarik gabe, datozen ekitaldietarako erronka nagusia artikulu honetara ekarritako datuak egonkortzea izango da, eta ahal dela, goranzko joera mantentzea. Hori, ordea, ez dugu guk soilik lortuko, zuen laguntza behar izaten jarraituko dugu. Elkarrekin ari gara hazten, eta horretan jarraitu nahi dugu.

## Eduki irakurrienak

Egunez egun gure atari digitalean irakurri dituzuen edukiak hamaika gairi buruzkoak izan dira. Askotariko familia ereduak buruz egin dugun erreportaje-sorta nabarmendu nahi dugu, bi arrazoigatik: batetik, horrelako kazetaritza-lan bat egin dugun lehen aldia izan delako; eta bestetik, irakurleen interesa piztu delako. Ez da kasualitatea kurtsoko hamar eduki irakurrien

artean serie horretako lau artikulu egotea. Ikusmin handiena sortu duena Agirre-Mantzidor familiarena izan da.

El Conquistador del Caribe saioan lehiatu diren bi herritarrek, Euskaldia, Ttakun KEren eta udalaren *Gure Patxintxiak* lehiaketa, Pako Bergara irakaslearen bertso-agurra, COVID-19 iraunkorra tarteko Bego Toquerori egindako elkarrizketa eta Lierni Rekondok idatzitako *Lasartearra eta euskalduna?* zutabea ere badaude hamar bisitatuena artean.

Abuztuaren lantaldeak oporrak hartuko baditu ere, irakurleok izango duzue ikusteko edukirik: ikasturteko eduki ikusien errepaso egin dugu, eta hilabetez hilabete bideoak prestatu ditugu. Gure atarian topatuko dituzue guztiak, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)-en.

# Ohartzerako, 30

## Ttakun KE, 1991tik haurren aisia lantzen, baita udaran ere

Lerro hauek irakurtzen hasi zarenerako, baliteke Ttakun Kultur Elkartearen udako txokoetan eta udalekueetan hamaika abentura bizi izan dituzten gaztetxoek aurtengo abentura bukatu izana. 30. urtez jarraian, euskara elkarte horrek udaran zehar euskaraz jolasteko, dibertitzeko, abesteko, dantzatzeko, imajinatzeko... aukera eskaini die Lasarte-Oriako belaunaldi berrienei. Tarte horretan makina bat haur, begirale, arduradun... aritu dira lanean.

TXINTXARRI aldizkariak artxiboan arakatu du, eta hiru hamarkada horietako hainbat une ekarri ditu erreportaje honetara.



1992. Txintxarrik artxiboan aurkitu duen udaleku irekien argazki zaharrena. TXINTXARRI



2000. Abuztuko talde bat. TXINTXARRI



1995. Urte horretan begirale lanak egin zituen taldea, Erribera kaleko eskaileretan eserita. TXINTXARRI



1997. Haurrak, gaur egungo Elizatze plazan, jolasten hasteko prest. TXINTXARRI



2004. Eskulanak egiten. TXINTXARRI



2007. "Sanfermineetaraaa, ongi pasaaatzeraaa, festak eta zezeenaak...". TXINTXARRI



2010. Apar festa ospatzen. TXINTXARRI



2013. Desfile koloretsua. TXINTXARRI



2016. Altxa guztiok eskuak gora! TXINTXARRI



2019. Porrotx eta Jalgunerekin. TXINTXARRI



## UDAKO TXOKOAK

Esker mila pila  
eta besarkada bero bat!



### PIEZA GUZTI HAUEN ARTEKO KONEXIO PERFECTUA!

**Familiak**  
haurrak, gurasoak, aiton-amonak

**Hezitzaile taldeari**  
Oihana, Iker, Irati, Asier, Haizea, Leire eta abenturen  
gidariak izan zaretenoi

**Herriko eragileei**

Oriarte Institutua, Oriartekide, Salto gela, Itzobakarreko zahar egoitza,  
Zabaleta Auzolan Elkarte, Porrotx eta Txapas, Enara, Isaac Farre, Txema  
Valles, Txintxarri Aldizkaria eta lagun ditugun herritar ugariak.

# Santa Anaren omenezko eguna

## Meza, dantzaldia eta parodia, aurtengo egitarau berezian

Ezohiko egoerara egokituta egin dituzte Santa Ana eguneko ospakizunak, baina, mugak muga, santuaren omenezko ekimenak ez dute hutsik egin aurtren ere. Mezarekin ekin diote, lasarteoriarrek Santa Ana Egunari. Jendetsua izan da Ama Brigitarren komentuan egin den ekitaldia, eta, ohi bezala, Erketz dantza taldeko kideek aureskua dantzatu dute, aldare aurrean. Elizkizuna amaituta, zapi gorri eta ikurrina batekin apaindutako Santa Ana karkabara joan dira. Egurdiko hamabietan, errepidea moztu dute udaltzaingoez, eta San Pedro eliza aurrean elkartu diren herritar ugariaren aurrean agurra dantzatu dute, txistu eta danbolin jotzaile baten doinuei jarraituz.

Ordu batzuk beranduago, gaueko hamarretan, iritsi da urteari errepaso umoretsua egiteko unea; parodiaren ordua. Ttakun Kultur Elkarteak antolatu du emanaldia, udalaren eta herritar ugariaren laguntzarekin: aktoreak, gidolariak, kamara lanak egin dituztenak, kultur etxeko teknikariak... Ikuskizunaren atzean "jende asko" dagoela azpimarratu du Ttakuneko lehendakari Mari Karmen Ormazabalek, eta gogoratu du elkarteak 25 urte daramatzala parodia antolatzen, Manuel Sagardiaren eskutik lekukoa jaso zuenetik. 71. emanaldia izan da aurtengoa, berezia, iazkoa bezala, COVID-19aren pandemiaren eraginez. Hitzartzea amaitu aurretik, duela aste gutxi zendutako Eloy Arroyo herritarra izan du gogoan: "Urte luzez lagundu izan gaituz hiru gutzia antolatzen; zauden tokian zaudela, gozatu ezazu parodiak zuk ere". Ez da gaueko une hunkigarri bakarra izan, emanaldia hasi aurretik Jalgune elkarteak omendu baitu antolakuntzak, "inklusioaren alde" egiten duen lanagatik. Emozionatuta igo dira oholta gainera Edorta Hornillos eta Oscar Guinaldo, Jalguneko kide guztien izenean. Plaka eta zapi gorriak jaso, eta Lierni Rekondok prestatutako bertso ederra entzun dute. Rekondoren ahots finarekin ez du zerikusirik izan Miguel Boserrenak; guztien ezusterako, hark irakurri du aurtengo bandoa.

Gozatu ederra hartu dute kultur etxera bertaratu diren guztiek, bik izan ezik: Angustiaz Ezezkualde Ezezkualdek eta Pantxo Zilborraundi Niriezikutuk. Lasarte-Orian egindako triskantza eta alprojakeria guztiak tarteko, akusatuak izan dira, eta epaiketa zorrotz eta ezohiko bati aurre egin behar izan diote: batetik, Mallorcako hotel batzuetan konfinatuta daudelako Santa Ana, San Joakin, basajauna eta idazkaria; eta bestetik, juizioari arreta jarri baino, elkarri mokoka aritu direlako epailea, fiskala eta defentsa abokatua. Banan-banan, fiskalak bi epaituen aurkako akusazioak aurkeztu ditu: Nikolaxa eta haren sagu familiaren erroldatze saiakera; urte eta erdi etxean konfinatuta daraman herritarren testigantza; Ama Brigitarren komentuko mojen, akolitoaren eta apaizaren komeriak; eta herrian terraza bilatu ezinik dabilzan herritarrenak. Akusatuaren erreguak erregu eta aieneak aiene, basajaunak erabaki irmoa hartu du, eta sutara bidali ditu Angustias eta Pantxo. Deabrua etorri da haien bila, eta saiatu arren, ezin izan diote patuari muzin egin.



Angustiaz Ezezkualde Ezezkualdek eta Pantxo Zilborraundi Niriezikutu (atzean, eserita) epaitu dituzte au



Brigitarren komentuan egin dute, Santa Anaren omenezko elizkizuna. TXINTXARRI



Erketz EDTko dantzariak Santa Ana karkaban dantzatu dute astelehen eguerdian, uztailaren 26an. Dantzaldia baino lehen, Brigitarren komentuan ospatutako elizkizunean ere aritu dira. TXINTXARRI







dituzte aurtan. Fiskalak (zutik) akusazio ugari aurkeztu ditu haien aurka. TXINTXARRI



Aurtengo pregoia Miguel Bose ezagunak irakurri du, eta ez hori bakarrik; abestu eta dantzatu ere bai. TXINTXARRI



Lierni Rekondok bertso ederra eskaini die Jalguneko elkarteak. TXINTXARRI



Jalguneko Elkarteak jaso du aurtengo omenaldia, parodiaren antolatzaileen partetik. Hunkituta aritu da Edorta Hornillos. TXINTXARRI



Bi akusatuen eta haien defentsaren abokatuaren erreguek ez zuten epaileengan eragin, eta Pantxo zein Angustias sutan kiskaltzera kondenatuak izan ziren. Haien bila etorri zen deabrua, eta saiatu arren, ezin izan zuten ihes egin. TXINTXARRI





Maialen Chourraut, Tokio 2020 Joko Olinpikoetan zilarrezko domina jantzi ostean. RTVE

# Zilarrezko domina, bost urtetako lanaren sari

Maialen Chourraut herritarrak balentria ederra egin du Tokio 2020 Joko Olinpikoetan. Ur bizietako eslalom K1 mailako zilarrezko domina lortu du final zirrarragarrian eta hirugarrenez jantzi du domina bat Joko Olinpikoetan, Londresko eta Riokeen ostean

## Txintxarri

Balentria ederra egin zuen Maialen Chourraut herritarrak uztailearen 27an, asteartean, Tokioko Kasai kanalean. Bost urteko bide zailari aurre egin ostean, K1 mailako zilarrezko domina jantzi zuen Atletico San Sebastian taldeko kideak eta bere hirugarren domina olinpikoa ekarri du etxera.

Pausoz pauso probak gaintzen joan zen herritarra. Uztailearen 25ean sailkapen probak arazorik gabe igaro zituen, baita lehen postuetan egotea espero zen Jessica Fox, Ricarda Funk edo Luuka Jones arerioek ere.

Kasai kanalean egindako lehen jaitsieran seigarrena izan zen, 108.25eko denbora eginda, 19.

atean bi segundoko zigorra jaso ondoren.

Bigarrenean, ordea, garbiago jardun zen eta 105.13ko denboran osatu zuen proba, bosgarren jaitsiera onena eginda.

## Ezusteak

Bi egun geroago itzuli zen Chourraut kanalera; ezustekoz betetako jardunaldia izan zen.

Finalerdiari hasiera eman eta berehala, ibilbidearen zailtasuna ageriko geratu zen. Denboraldian zehar indartsu ibili diren hainbat arerio, Ana Satila brasildarra esate baterako, finalerako txartela ematen zuten hamar postuetatik kanpo geratu ziren eta 22 urteko Eliska Mintalova gaztea proba buru mantendu zen (107.18) Jessica Foxek jaitsiera egin arte (105.85).

Lasarte-Oriako palista azkenetarikoa izan zen urerutzen eta sailkapena buruan, jaitsiera lasaia egin zuen.

Tamalez 23. atea ukitu ostean, bi segundoko zigorra jaso zuen eta 109.92 denborarekin zazpigarren amaitu zuen lehia.

## Eskarmentua

Nahiz eta denbora gutxi izan finala prestatzeko, Chourrautek urtetako eskarmentua zuen alde eta hori erabakiorra izan zen ikusle guztioi kirioak dantzan jarri zizkigun jaitsieran.

Finaleko laugarren atera zen kanalera eta finalerdiaren antzera, lasaitasunez ekin zion jaitsierari.

Ateak garbi igaro zituen ukiturik egin gabe eta jauzietako batean arazoa izan arren, zirkuituko azken metroetan berreskuratu zuen denbora.

Sailkapeneko buru jarri zen helmugan 106.63 denbora eginez. Pozik zegoen egindako lanarekin eta arerioen lana itxarotea besterik ez zen falta.

Azken hiru parte-hartzaileak jaitsi arte lehen postuan mantendu zen herritarra. Zirrarez beteko uneak izan ziren.

Ricarda Funk alemaniarraren txanda iritsi zen. Jaitsiera garbia egin eta 105.50 denbora eginez herritarra aurreratu zuen. Laugarren postua eskura zuen Chourrautek.

Eliska Mintalova gazteak bere lehen final olinpikoari egin behar zion aurre. Sendo hasi zen lanean, baina 18. atea saltatu eta 50 segundoko zigorrak sailkapeneko azken postuetara eraman zuen.

Ondorioz, herriko palistak hirugarren domina eskura zuen eta emozioz negarrez hasi zen. Jessica Fox favoritoa falta zen oraindik ateratzeko.

Indartsu hasi zen australiarra eta laugarren atea ukitu zuen, 2 segundoko zigorra jaso. Hala ere, azkar zihuan eta bigarrenengo denbora puntuan ikusi zen. 70.64 egin zuen; Funkek baino ia bi segundo gutxiago.

Azken aurreko atean etorri zen albistea. Ukitu berria egin eta beste bi segundo gehitu zizkioten. Foxek ez zuen Funken denbora gaintutuko eta azken metroetan zilarrezko domina lortzeko ahalegina egin zuen. Ez zen nahikoa izan eta, hamar ehunekorengatik, hirugarren postuan sailkatu zen.

Chourrautek zilarrezkoa lortu zuela ikusitakoan, pozez eztanda egin eta Rioke Joko Olinpikoetan antzera uretara jauzi egin zuen bere entrenatzaile eta senar Xabier Etxanizek selekzioko beste kide batekin batera.

Bide honetan lagun izan dituen guztiei eta, batez ere, Ane alabari eskaini zion domina.

Era honetara, ederki eman dio amaiera herritarrak ziklo olinpiko gorabeheratsu eta gogorrari. Londres 2012 eta Rio 2016 Joko Olinpikoetan eskuratutako brontzezko eta urrezko dominari zilarrezkoa gehitu dio, eta bere kondaira handitu du.

Uztailearen 29an itzuli zen herritarra Donostiara, eta bere klubeko kideen eta senitartekoen harrera beroa jaso zuen Kontxako hondartzan.

## Maialen Chourrauten garaipen zerrenda

	2004	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Espainiako txapelketa				🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	🏆	
Europako txapelketa (23 urtez azpikoa)					7. postua	5. postua	🏆		🏆 taldea	🏆	6. postua	🏆 taldea	4. postua	12. postua		8. postua
Munduko txapelketa		14. postua		🏆		🏆				5. postua			27. postua	10. postua		
Joko Olinpikoak			16. postua				🏆				🏆					🏆

# Lehia bizia Castro eta Lekeitioko uretan

Donostia Arraun Lagunak Castro Urdialesen Caixabank bandera eskuratu arren, ezin izan du Lekeition lidergoa mantendu. Hondarribia Bertako Igogailuak trainerua laugarren izan da bi jardunaldietan eta berriro ere, Ligako azken postuan da

## Txintxarri

Uztailaren 24an eta 25ean, Castro Urdialesen eta Lekeition jokatuak Euskotren Ligako jardunaldietan lehia handia izan zen. Aiora Belartietara kide duen Lugañenek VI. CaixaBank bandera irabazi zuen Castron; igandean, berriz, hirugarren izan ziren. Hondarribia Bertako Igogailuak ontziak, berriz, laugarren postuan amaitu zituen bi estropadak.

VI. CaixaBank banderako lehen luzean estropadako burua aldatzen joan zen. Ziabogara Orio-Orialki iritsi zen lehen postuan, eta jarraian, Donostiara Lacturale. Ziabogatik ateratzean, ordea, atzean geratu zen Donostiako taldea eta Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribiak aurrea hartu zioten.

Bigarren luzean Orio-Orialkik buru jarraitu zuen. Baina mirotzen eta Lugañeneko eskifaiaren arteko tartea estua zen, segundo batekoa. Azken metroetan Aiora Belartietara herritarrek eta bere talde kideek indartsu ekin zioten; Orio-Orialki gainditu eta bandera erdietsi zuten.

Atzetik Donostiara Lacturale zortzi segundora eta Hondarribia Bertako igogailuak bederatzi segundora iritsi ziren helmugara.



Donostia Arraun Lagunak, Caixa Bank bandera jaso ostean. EUSKOTREN LIGA / A. ARRIZABALAGA

Garaipenari esker, Euskotren ligako buru jarri zen Donostia Arraun Lagunak.

## Berdinketa, berriro ere

Baina ez zuen asko iraun bakarkako lidergoak. Lekeitioko uretan Orio-Orialki bigarren eta Lugañene hirugarren izan baitziren.

X. Euskotren Banderan ere lehia estua izan zen, uztailaren 25ean. Estropadako lehen luzean aurre hartu zuen Donostiara Lacturalek eta ongi mantendu zen lehen postuan ziabogaraino.

Atzean, berriz, Orio-Orialki eta Donostia Arraun Lagunak

traineruen arteko borroka ikusi zen. Ziaboga bateratsu egin zuten.

Bigarren luzea hasterako hiru ontziek berriro ere bat egin zuten.

Orio-Orialki eta Donostia Arraun Lagunak buru hartu eta lehen postua borrokatu arren, azken metroetan Donostiara Lacturalek bi eskifaiak gainditu eta denboraldiko lehen bandera eskuratu zuten.

Egun Donostia Arraun Lagunak eta Orio-Orialki Ligako buru daude 25 puntura berdinduta. Donostiara Lacturalek hamazazpi puntu ditu eta Hondarribia Bertako Igogailuak, berriz, hamahiru.

# Urdanpilleta, ezin Zikuñaga torneoko finalera sailkatu

Manterolarekin batera, finalerdi berdindua jokatu du Deskarga eta Erauskinen aurka; 18-17 galdu dute

## Txintxarri

Zikuñaga Papelera txapelketako finalerdiak jokatu ziren uztailaren 23tik 26ra. Intzako hainbat pilotarik hasi bazuten ere, Peru Urdanpilleta lehen mailako kadetea bakarrik iritsi

zen azken fase honetara. Hernaniko Manterola izan zuen bikotekide lehia honetan eta finalerdi arte iritsi ziren. Ezin izan zuten aurrera egin.

Uztailaren 24an, Manterolaren talde kide Julen Deskargak eta

Lapkeko Jon Erauskinen osatutako bikotearen aurka jokatu zuten finalerdi.

Partida zirrargarria ikusi ahal izan zuten Hernaniko pilotalekura hurbildu ziren ikusleek. Bi bikoteak lehen kadete mailako finalerako txartelaren bila atera ziren.

Norgehiagoka berdindua izan zen bi bikoteen artekoa. 17na berdindu ostean, azken sakean arerioen alde egin zuen patuak eta Deskargak eta Erauskinen lortu zuten helburua.



Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak probako lehen kilometroan. BALEIKE

# Buruntzazpi eskolako kideak, Euskadiko onenen artean

Eskola kide Beñat Carbayeda eta Haimar Etxeberria lehen hamarren artean sailkatu dira Zumaian

## Txintxarri

Junior mailako Euskadiko txirrindularitza txapelketak jokatu zen uztailaren 24an, Zumaian. Araba, Bizkaia, Nafarroa, Gipuzkoa, zein Iparraldeko partehartzaileak bildu ziren Joxe Mari Kortaren oroimenezko Zumaiaiko XLIII. Uda txirrindularitza Sarian, Buruntzazpi Txirrindularitzako eskolako kideak eta Viveros San Anton taldeko Ander Altuna herritarra barne.

Zumaian hasiera eta amaiera zuen 110 kilometroko ibilbidea egin zuten 163 txirrindularik. Hamabosgarren kilometroan hasi ziren lehen erasoak baina petoloiak ongi erantzun zuen behin eta berriro iheslariak harrapatuz.

Meagaseko lehen igoerak aldatu zuen lasterketaren erritmoa eta taldetxoak sortzen hasi ziren. Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideak eta herritarrek tropelean geratu ziren.

Helmugara iritsi ahala taldetxoak harrapatzen joan ziren eta tropeleko kideak murrizten joan ziren. Gauzak honela, Ulmako Aimar Madina bakarrik iritsi zen Zumairako helmugara. Atzetik Hugo Aznar nafarra iritsi zen eta Unai Zubeldia eta Ander Ormazabalek hirugarren postua eskuratzeko esprinta egin zuten.

Iparraldeko Maxim Renauxek ere azken ahalegina egin behar izan zuen atzetik zetorren taldetxo gertu zuela ikusita. Buruntzazpi eskolako kide Beñat Carbayeda eta Haimar Etxeberria taldetxo horretan zeuden eta esprint ederra egin zuten lehenen artean iristeko. Zazpigarren eta bederatzigarren izan ziren, hurrenez hurren.

Viveros San Anton taldeko Ander Altuna herritarrek eta eskolako kide Mikel Orbegozok ere proba amaitu zuten.



Urdanpilleta-Manterola (ezkerrean) eta Deskarga-Erauskin, partida hasi baino lehen. RUFINO REKALDE

# Itsas zeharkaldien denboraldi hasiera ona

Buruntzaldea Igeriketa taldeko zein herriko igerilariak itsaso zabaleko probak lehiatu dituzte azken asteetan. Emaiza onak izan dituzte eta, esate baterako, igeriketa taldeko Nerea Santosek laugarren postua eskuratu du San Anton bira proban

## Txintxarri

Lasarte-Oriako igerilariak igerilekuko lehia utzi eta itsasora egin dute jauzia. Itsas zeharkaldien denboraldia hasi da eta emaitza onak lortu dituzte.

Uztailaren 18an, Buruntzaldea IKTko Nerea Santosek eman zion hasiera Getariako II. San Anton Biran eta podiumetik gertu geratu zen Urnietako igerilaria.

Zeharkaldiak 2.600 metroko luzera izan zuen eta Santosek 39 minutu eta 50 segundo behar izan zituen helmugara iristeko. Horri esker, laugarren postuan sailkatu zen.



Buruntzaldea IKTko Nerea Santos Zarautzeko hondartzara iristen. BURUNTZALDEA IKT

## Getaria-Zarautz zeharkaldia

Uztailaren 24an eta 25ean, berriz, proba esanguratsua den Getaria-Zarautz zeharkaldia jokatu zen. COVID-19ak eragindako moldaketa batzuk izan zituen probak eta ibilbide aldaketaz gain, bi egun ezberdinetan jokatu ziren Zarautz-Ubiri-Zarautz proba eta Zarautz-Mollarri-Zarautz proba.

Uztailaren 24an, 5.000 metroko ibilbidea zuen Zarautz-Mollarri-Zarautz proban Lasarte-Oriako ordezkariarik egon ez bazen ere, Zarautz-Ubiri-Zarautz proban

hainbat herritarrek eta Buruntzaldea IKT taldeko kideek parte hartu zuten.

Zarauzko uretan 3.000 metroko ibilbidea egin zuten igerilariak eta Buruntzaldea IKTko Nerea Santosek bere mailako zazpigarren postua eskuratu zuen, 48:53; Eneko Elizasuk, berriz, 21. postuan amaitu zuen zeharkaldia, 42:36.

Julen Azpiroz (56:18) eta Aitor Santos (1:07:51) gazteak lehian atzerago ibili baziren ere, "gogotsu eta bikain" aritu zirela

nabarmendu du Buruntzaldea IKTko arduradun Borja Apeztegiak.

Master mailan ere izan ziren Buruntzaldea IKTko ordezkariak Igor Amantegi, Laura Igea eta Manu Santos "bikain lehiatu" ziren. Amantegik 56:18 denbora egin zuen; Igeak 57:02 eta Manu Santosek, azkenik, 1:09:15.

Juan Vicente Martin (50:05), Garikoitz Lopetegui (51:43), Andoni Illarreta (53:23) eta Ainara Benavente (1:00:30) herritarrek ere ibilbidea burutu zuten.

## LOTMEko kideak, Gran Trail Aneto Posets proban

42 kilometrotako ibilbidea duen Tucaseko Maratoian parte hartu dute berriki Benasquen, Huescan

## Txintxarri

Gran Trail Aneto Posets proba jokatu zen uztailaren 23tik 25era, Benasquen, Huescan. Hiru proba ezberdin izan ziren, horien artean, Lasarte-Oria Traileko Ines Aguado Blanco eta Karlos Gonzalez Sanchezek burutu zuten Tucaseko Maratoia.

Tucas de Ixeia inguruko bideetan barrena 42 kilometroko ibilbidea egin zuten parte-hartzaileek uztailaren 24an. Bidean Estoseko eta Angel Orus aterpetxeak igaro zituzten eta guztira, 2.500 metroko desnibel positiboa izan zuten.

Gonzalezek 7:21:55 behar izan zuen ibilbidea egiteko. Sailkapen

orokorreko 161. postuan eta beterrano mailako 53.ena eskuratu zituen.

Aguadok, berriz, 8:02:28 behar izan zituen Benasqueko helmugara iristeko. emakumeen mailan 21.ena izan zen eta beterrano mailan, hamargarrena.

## Mendi Festa

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteak 3. Mendi festako izena ematea irekia dagoela gogorarazten du. Proba irailaren 26an egingo da eta hiru ibilbide izango dira. Izenematea [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) orrialdean egin behar da.

## Real Sociedad-Alaves, denboraldia emozioz amaitzeko

Irati Urruzola Bermejo 'Urru' herritarra kide duen Alaves Gloriosas taldeak lehenengoz jokatu du lehen mailan

## Txintxarri

Irailaren 5ean hasiko da emakumezkoen futboleko lehen maila. Berrikuntza ugari izango dira; horien artean, izen aldaketa. Hemendik aurrera Iberdrola Liga zena, Ellas Liga bihurtuko da.

Bestetik, Gasteizko Alaves Gloriosas taldearen debut urtea izango da eta horrek bi herritar lehen mailan lehiatzea suposatuko du.

Gasteizko taldeko kide da Irati Urruzola Bermudez Urru herritarra. Lasarte-Oriako defentsak 2020-2021 denboraldi hasieran Alaves Gloriosas taldearekin bat egin eta iguera lortu zuen.

Uztailaren 19an hasi zuen taldeak denboraldi-aurrea eta bederatzi partida jokatu dituzte irailean prest egoteko. Abuztu amaieran Euskal Herria Kopako finalerdia jokatu dute eta Iraia Iparragirre Argandoña herritarra kide duen Real Sociedad izango dute aurrez aurre.

Reala ez da oraindik lanean hasi. Abuztuaren 2an, astelehenarekin, hasiko ditu entrenamenduak, eta Euskal Herriko kopako partidez gain,

oraindik ez du denboraldi-aurrean jokatu dituen partiden berri eman.

Iraia Iparragirre Argandoña zazpigarren denboraldia hasiko du Realean. 2020-2021 denboraldi amaieran ezin izan zuen jokatu hanketo lesioa dela eta. Oraindik osatze bidean da eta %100era egoteko lanean jarriko da abuztuaren 2an, taldearekin batera.

## Derbia, denboraldia amaitzeko

Uztailaren 21ean Iberdrola Ligako egutegia finkatzeko zozka egin zen. Liga osatuko duten hamasei taldek 30 jardunaldiko denboraldia jokatu dute maiatzera arte.

Alaves Gloriosas taldeak Real Betis izango du lehen arerio denboraldi berrian; Realak, berriz, Valencia.

Real eta Gloriosas Alaves taldeak lehen itzuliko azken jardunaldian izango dira lehenengoz aurrez aurre Gasteizen, abuztuaren 21eko asteburuan eta beraz, denboraldiari amaierako neurketa zirrargarria espero da Donostian, maiatzaren 15eko asteburuan.



OSTADAR SKT

## Tourreko Porrako irabazleei saria

Frantziako Tourra uztailaren 18an amaitu zen. Ostadar SKTko arduradunek Porrako sari banaketa egin zuten Larrañaga harategian, uztailaren 23an. Traperua izeneko txartela izan da garaile eta bigarren sailkatua, berriz, Maira. Puntu gehien lortu dituen taberna Larrañaga harategia izan da. Sari nagusiez gain, parte-hartzaileen artean zozkatu diren urdaiazpikoak ere banatu zituzten. Baina ez da lehia amaitu, abuztuaren 14an Espainiako Itzulia hasiko baita. Ostadar SKTko kideek jakitera eman dutenez, egun batzuk lehenago tabernetan porra egiteko zerrendak eta boletoak eskuragarri jarriko dituzte eta online egiteko aukera ere izango da.

## ZORION AGURRAK



**Ekhi**  
Zorionak gure eguzkitxoari! 6 urte!  
Segi gure egunak alaitzen zure irribarre hain bereziarekin!  
Infinitu maite zaitugu:  
Nahia, Amatxo eta Aita.



**Haritz**  
Zorionak Haritz!  
Urtebetetze zoriontsua opa dizugu familia osoak. Muxu erraldoiak!



**Iraitz**  
Zorionak Iraitz! 4 urte xoragarri zure ondoan!  
Muxu handi bat. Aita, ama eta Aiene.



**Kai**  
Aingeru bat jaiotzen zure ondoan 25ean. Kai izena du. Zorionak!!!




**Nerea**  
Zorionak, Nerea!  
Ederki ospatu genuen, patata-tortila eta guzti!  
Egun polita igaro izana espero dugu! Guk, datorren urterako ere eskatuko diogu Santa Anari aurtengo hamaiketako bera!

### Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.  
Deitu 943 37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 30




Larunbata, 31




Igandea, 1




Astelehena, 2




Astearte, 3



Asteazkena, 4



Osteguna, 5



## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 30	GANDARIAS-URIBE	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00
LARUNBATA, 31	DE MIGUEL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 1	DE MIGUEL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 2	DE ORUE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 3	DE MIGUEL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 4	LASA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 5	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
OSTIRALA, 6	GANDARIAS-URIBE	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21
LARUNBATA, 7	LASA	
IGANDEA, 8	LASA	
ASTELEHENA, 9	URBISTONDO	
ASTEARTEA, 10	GANDARIAS-URIBE	
AZTEAZKENA, 11	DE ORUE	
OSTEGUNA, 12	GIL	
OSTIRALA, 13	LASA	

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

**URTE OSOKO GUARDIAK APP-A** eskuragarri app store edo android marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) orrialdean eskuragarri.

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 607 625 233

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

		9		3	7			6
	1	6		2		7		5
		7	6				9	
	7							4
	9			4	8	5		3
	8	4	7			1		9
9	4				6		5	
	3	1		9				
	6		2			9		8

## OHARRA

### Biyak Bat elkarteko jardueren eta Urrezko ezteien bikoteen izena ematea martxan

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, egoitzak eskaintzen dituen jardueretan izena emateko epea ireki da. Jarduerak zumba, yoga, lerroko dantzak, aretoko dantzak, sevillanak, memoria, gimnasia eta eskulanak dira.

Egoitza irekitzen denean guztia prest izan nahi dute eta bazkideei izena emateko eskaera egiten diete. Horretarako bazkideek bulegoko ordutegian (astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era) egin behar dute inskripzioa. Taldeak murriztuak izango direla ere nabarmendu dute.

Era berean, elkarteak gogorarazten du, irailaren 15era izena eman ahalko dutela 2020. urtean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarteko bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan. Inskripzioa hau ere egoitzeko bulegoan egingo da.

### Lasarte-Oria aldizkariko harpidetza

Lasarte-Oriako elkarte eta eragileek argitaratutako Lasarte-Oria aldizkariak bere 83. zenbakia argitaratu du ekainean. Lasarte-Oria aldizkariaren helburua, besteak beste, Lasarte-Oriako historia berreskuratu eta transmititzea da. Aldizkariko harpidetza diren herritarrek etxean jasoko zuten dagoeneko eta bertan dauden herriko elkarten berriak edo artikuluko historikoak irakurriko zituzten.

Lasarte-Oria aldizkaria ikusgarri eta eskuragarri dago [www.danokkide.es](http://www.danokkide.es) orrialdean, 48. zenbakitik aurrera. Hala ere, bada eskura izan nahi duenik ere. Horregatik, etxean paperezko zenbakia jasotzeko pausoak azaldu ditu aldizkaria kudeatzen duen Danok Kide elkarteak.

Aldizkaria doakoa da. Interesatuak aldizkarian bertan aurki daitekeen harpidetza-orria bete, moztu eta Danok Kide elkarteko postontzian (Blas de Lezo 13 baxua) utzi behar dute. Aldizkaririk eskura ez dutenek, [info@danokkide.es](mailto:info@danokkide.es) helbidera bidali dezakete eskaera. Mezuan aldizkaria jaso nahi duen pertsonaren izena eta helbidea zehaztu behar direla nabarmendu du Danok Kide elkarteak.

### Kirol instalakuntzen itxiera bi astez

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakinarazten du uztailearen 25etik abuztuaren 8ra, biak barne, udalaren kirol instalazioak itxita egongo direla. Urteroko derrigorrezko mantentze eta garbiketa lan teknikoak egingo dituzte.

Abuztuaren 9tik aurrera udako ordutegiarekin jarraituko dute lanean. Ordutegia honakoa da:

- Astelehenetik ostiralera:
  - Kiroldegia: 7:00-13:00 / 16:00-22:00.
  - Igerilekua: 7:00-12:30 / 16:00-21:30.
  - Mitxelín Kirol Gunea: 10:00-12:30 / 17:00-22:00.
- Larunbatetan:
  - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
  - Mitxelín Kirol Gunea: 9:00-13:00.
- Igande eta jai egunetan:
  - Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00.
  - Mitxelín Kirol Gunea: Itxita.

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

### LANA

#### ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 27 81 98. Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen

barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daiteke. Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.

Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan

egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.

Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala

garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, 100 eurotan biak. Harremanetarako zenbakia, 670 60 74 95.

Txerriak (9 txerrama), apotea eta txerrikumeak salgai. Harremanetarako zenbakia, 607 668 603.

Mountainbike salgai. Beltza eta arroxka. 8 urtetik aurrerako haurrentzako. Kaskoa, argiak eta osagai guztiak. Berria bezala. 150 euro. Harremanetarako zenbakia, 637 53 58 51.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

## ZOZKETA

### Uztaileko saria Adin-Otegi familiarentzat

Ttakun Kultur Elkarteak hileroko produktu ezberdinak zozkatzen ditu bere bazkideen artean. Udako oporraldien aurretik, uztailean, Errigorako saski ekologiko bat zozkatu du, eta izena eman zuten bazkideen artean zozka egin genuen. uztailearen 26an, astelehena. Oraingoan, Javi Adin izan da garailea. Ostegunean jaso du saria, Malen alabak lagunduta. Nafarroa hegoaldeko produktuez betetako kutxa gozatu dezazuela, familia, eta mila esker zozketan parte hartu duzuen bazkide guztioi!



Malen eta Javi, saria jarotzen. TXINTXARRI

Abuztuan oporretara joango gara, baina irailean, indarberrituta itzuliko gara, eta jarraituko dugu zuon fideltasuna saritzen. Bien bitartean, zuek ere uda ona igaro dezazuela, eta irailera arte!

### NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik


#### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## MANNTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galarzi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

#### Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide  
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza,  
Iker Lanchas, Beñat del Olmo, Olatz  
Bardaji eta Igone Mendizabal.

#### Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.350 ale

#### BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

#### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 30

**LASARTE-ORIA Kale antzerkia**  
Hortzmuga antzerki taldeak uztailleko kale-antzerkiko saioei amaiera emango die *Al final del camino* lanarekin. Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioa, 19:00etan.

**DONOSTIA Ibilbide ludikoa**  
Donostiako San Telmo museoak *Kanoiak su kanoiak hobeto ezagutzeko ibilbide ludikoa* antolatu du Urgulleko Historiaren Etxean. Familiei zuzendutako jarduera da, eta uztailleko ostiral guztietan egin dute, eta iragarri dute, abuztukoetan ere egingo dutela. Jarduera doakoa da, baina aurrez lekua erreserbatzea ezinbestekoa museoaren webgunearen bitartez. San Telmo museoa, 18:00etan.

## LARUNBATA 31

**ZUBIETA Kultur/kirol zikloa**  
San Inazio Jaiak ospatuko liratekeen urte sasoi honetan, jairik ez, baina kultur ekintzak izango dituzte zubietarrek. Goizeko 10:30ean meza egingo



**LASARTE-ORIA Kale Antzerkia** Hortzmuga antzerki taldeak uztailleko kale-antzerkiko saioei amaiera emango die *Al final del camino* lanarekin. Hortzmuga Teatroa kale antzerki konpainia bat da, eta 1989an sortu zena. Orduz geroztik, 30 ekoizpen eta ekitaldi handi egin ditu, eta, horregatik, erreferentziako konpainietako bat bezala finkatu da euskal arte eszenikoen munduan. *Al final del camino* kale-komedia emozional bat da, ikus-entzule guztientzako egina, eta, umorez betea. Lasarte-Orian, uztailaren 30an, 19:00etan.

dute San Inazioren omenez, eta ordu berean, errebotean, Euskal Herriko finala jokatu dute kadete mailako kirolariak. 16:00etan, berriz, kirol saioarekin jarraitzeko,

Joko Garbi, Euskal Herriko Finalak jokatu dituzte umeez, kimuek, gaztetxoek. Ordubetan beranduago, 17:00etan azoka izango da, eta egunari behar bezalako amaiera

## ZINEMA

### USURBIL

### URBIL

### ¡A todo tren! Destino Asturias

Ostirala: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.  
Larunbata: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.  
Igandea: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

### Fast & Furious 9

Ostirala: 16:25, 18:35, 21:30.  
Larunbata: 16:25, 18:35, 21:30.  
Igandea: 16:25,

18:35, 21:30.

### Jungle Cruise

Ostirala: 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45.  
Larunbata: 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45.  
Igandea: 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45.

### La Purga Infinita

Ostirala: 15:50, 19:40, 22:15.  
Larunbata: 15:50, 19:40, 22:15.  
Igandea: 15:50, 19:40, 22:15.

### Space Jam: Nuevas leyendas

Ostirala: 16:05, 18:10, 18:50, 21:35.  
Larunbata: 16:05, 18:10, 18:50, 21:35.  
Igandea: 16:05, 18:10, 18:50, 21:35.

### Tiempo

Ostirala: 16:40, 19:20, 22:00.  
Larunbata: 16:40, 19:20, 22:00.  
Igandea: 16:40, 19:20, 22:00.

### Viuda negra

Ostirala:

15:50, 21:50.  
Larunbata: 15:50, 21:50.  
Igandea: 15:50, 21:50.

### Jungle Cruise

Ostirala: 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45.  
Larunbata: 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45.  
Igandea: 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45.

emateko, 23:30ean Ameba eta Rodeo musika taldeek emanaldiak eskainiko dituzte. Zubieta, egun osoan zehar.

## IGANDEA 1

**USURBIL Kontzertua**  
Donostiako 82. Musika Hamabostaldia barruan, organo kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute, herritarrek. Craig Williams organo jotzaileak musika emanaldia eskainiko du, eta Dupré, Thayer, Hampton, Diemer, Widor konpositoreen lanak interpretatuko ditu. Antolatzaileek


jakinarazi dute sarrerak hartzea ezinbestekoa dela, eta, horretarako, [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforma jarri dute interesatuen eskura. Salbatore eliza, 20:00etan.

**LASARTE-ORIA Dantza zirkuitua**  
Los Yolos eta Unai musika taldeek emanaldiak eskainiko dituzte. Garage doinuak eskainiko ditu Los Yolosek, eta, gizon bakarti eta deprimitu baten istorioa kontatuko du Unaiek bere emanaldiaren bitartez. Sarrerak 8 eurotan daude salgai, [dabadabass.com](http://dabadabass.com) web orrian. Dabadaba, 20:30ean.

# txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)



*Oporretako*

# ARGAZKI LEHIAKETA

*Udara honetan atera  
argazki politak eta parte hartu  
TXINTXARRI-k  
antolatu duen lehiaketan*

*Anima zaitetz!*

txintxarri

Argazkia: Diery Portinanni

## Oporretara goaz!

Hurrengo TXINTXARRI aldizkaria irailaren 3an kaleratuko dugu.

Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:

txintxarri@ttakun.eus • 688 68 35 10 



txintxarri